

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHU_n MUGIKORTASUNA SUSTATZEKO ETA
IKERKETAREN EMAITZAK ZABALTZEKO LAGUNTZEN
DEIALDIA
(2023)**



ATARIKOA

Ikerketa bultzatzea eta garatzea dira unibertsitate jardueraren ardatzetako bat. Era berean, ikertzaileen mugikortasuna eta ikerketako emaitzen dibulgazioa ere jarduera garrantzitsuak dira ikerketa lanean. Gauzak horrela, baliabideak eman behar dira ikerketa jarduerak burutzeko. Ikertaldeetan eta lan arloetan hainbat egoera eman daitezkeela kontuan hartuta, komeni da ikertzaileen komunitateari ematen zaizkion baliabideak ere zabalak izatea.

Deialdi honen bidez, unibertsitateko ikertzaileen mugikortasuna eta UPV/EHUn egindako ikerketen emaitzen komunikazio zientifikoa finantzatu nahi dira, besteak beste.

Helburu honetarako 400.000 euro bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako Bikaintasuneko Ikerketako Kontratu Programaren barruan, "UPV/EHUn lidergoa eta parte hartzea sustatzea", Europar Batasunaren Ikerkuntza programa markoaren barruko ikerketa proiektuetan, "ikerketarako mugikortasun eta egonaldi programak sustatzea", "nazioarteko doktorego tesien egitea bultzatzea" izeneko ekintzetan esleitutako finantzaketari eta Ikerketaren arloko errektoreordetzaren aurrekontu kredituari lotutako aurrekontu kredituari dagozkionak. Kopuru hau gehitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu izateen arabera.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) bere oniritzia eman, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak jarraian zehazten diren diru laguntzak emateko deialdia argitaratzea erabaki du. Modalitate hauek daude:

- ❑ **I. modalitatea: ikertzaileen mugikortasuna, 30-150 egun bitarteko egonaldietan.**
- ❑ **II. modalitatea: nazioarteko elkarte zientifikoetako zuzendaritza organoetan parte hartu.**
- ❑ **III. modalitatea: Nazioarteko ikerketa proiektuetan parte hartzea bultzatzea.**
- ❑ **IV. modalitatea: kongresu zientifikoak antolatu.**
- ❑ **V. modalitatea: ekintza bereziak.**
- ❑ **IV. modalitatea: Ikertzaileen mugikortasuna, zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sareko eragileetan (ZTBES) 15-90 egun bitarteko egonaldiak egiteko.**

1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen bidez, batetik, unibertsitateko ikertzaileen mugikortasunerako jarduerak erraztu eta indartu nahi dira, eta, bestetik, ikerketako emaitzen difusioa bultzatu nahi da, UPV/EHUn estatu eta nazioarteko mailako biltzarrak antolatuz.

2. oinarria. DEIALDI HONETAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO EZINTASUNAK

Ezingo dituzte eskatu deialdi honek araututako laguntzak egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

- i. Epai irmoz kondenatuta daudenek diru laguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- ii. Zorrak badituzte UPV/EHUK ematen dituen diru laguntzak itzultzeko dauden betebeharrak direla eta.
- iii. Ebazpen irmo bidez zigortuta daudenak, lege honen edo beste lege batzuen arabera, diru laguntzak ez jasotzera.

Deialdi honetako IV. eta V. modalitateetan aurreikusitako laguntzen xede diren jarduerak egin nahiko dituzten ikertaldeak ezin izango dira onuradun izan, baldin eta taldeko kideren bat aipaturiko egoeraren batean badago.

I. MODALITATEA: ikertzaileen mugikortasuna, 30-150 egun bitarteko egonaldietan.

3. oinarria. EGONALDIEN HELBURUA

Modalitate honen bidez, ikertzaileei egonaldiak egiteko beste ikerketa zentro batzuetara joateko bidea erraztu nahi zaie. Egonaldiek gutxienez 30 eta gehienez 150 egun naturaleko iraupena izango dute, eta helburu bakar bat: ikerketa jarduerak burutzeko, bereziki nazioarteko doktorego tesiak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen doktorego aurreko kontratu baten bidez UPV/EHUri lotuta prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileen kasuan, laguntza 3 hilabeteko egonaldi bakar baterako izango da, modu jarraituan egingo dena, doktorego tesiaren nazioarteko aipamena lortzeko edo tesi bat tutorekidetzan egiteko.

4. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

4.1 Deialdiaren modalitate honetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da UPV/EHUko kolektibo hauetako batekoa izatea:

- a. UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako doktore funtzionarioak edo lan kontratadunak.
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2021 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako langileak (itzal handiko ikertzaileak); UPV/EHUn kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHUri lehenengo mailako adskripzioa duen Ikerbasque programako pertsonala, UPV/EHU-CSIC ikergune mistoei atxikitako doktoreak eta irakasle atxikiak; irakasle elkartuak; irakasle laguntzaile doktoreak.
- c. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikuluan (doktorego aurreko kontratuak), 22. artikuluan (doktorego ondoko kontratuak) jasotako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUREkin lotura duten langile ez iraunkorrak; eta lan kontratadun bitarteko edo ordezkari irakasleak, bi kasuetan doktoreak eta lanaldi osokoak.

b eta c puntuetan zerrendatutako langile ez-iraunkorren kasuan, beharrezko baldintzak izango dira UPV/EHUn gutxienez urtebeteko antzinatasuna izatea eta UPV/EHUREkiko kontratuaren edo loturaren iraupenak gutxienez finantzaketarako proposatutako ekintza amaitu arteko aldi osoa betetzea.

4.2 Ezingo dute parte hartu deialdiaren modalitate honetan honako egoera hauetako batean dauden pertsonak:

- a. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2021 Legearen 21. edo 22. artikuluen bidez lotutako langileak, mugikortasunetarako berariazko zuzkidura duten deialdietatik datozenak, doktoratu aurreko edo doktoratu ondoko kontratua eman zion erakundeak argitaratuak.
- b. Obra edo zerbitzu baterako (PIC) edo denbora jakin baterako Europako funtsen kontura edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23 bis artikuluen bidez kontratatutako langileak.
- c. Langile ez iraunkorrak, baldin eta horien kolektiboa ez bada sartuta 4.1 oinarriko a eta b letretan.
- d. Eusko Jaurlaritzaren mugikortasun laguntzan (Ikermugikortasuna) hautagai diren langileak, salbu eta eskaera azken deialdian egin badute eta deialdi hori finantzatu ez bada.
- e. Aldez aurretik programa honetako edo antzeko ezaugarriak dituen beste laguntza bat jaso duten pertsonak, bost hilabetetik gorako aldi metatuan, 2022ko urtarriletik 2023ko abendura arte. Aldi horretan hartutako/loritutako egonaldiaren aldi metatua txikiagoa bada, 150 egunera arteko gainerako egun-kopuruagatik laguntza eskatu ahal izango dute. Hala ere, bigarren egonaldi bat eskatzeko epeak betetzen badira ere, helmugako zentroa mugikortasun-laguntzaren xede den zentro bera denean, eskatzaileak argi eta garbi arrazoitu beharko ditu bigarren mugikortasun horrekin lortuko lirakekeen beharrak eta onurak, bai eta lekualdatze berria eragingo duten lehenengo egonaldiaren ondoren lortutako emaitzak ere (baterako argitalpenak, ikerketa proiektuetan laguntzea...).

4.3 Eskatzaileak ikertalde aktibo bateko kide izan behar dira edo UPV/EHUn gauzatzen den ikerketa edo kontratu proiektuaren batean parte hartzailea izan, zeinean unibertsitatea finantzaketaren onuraduna den, finantzaketaren jatorria edozein dela ere.

Doktore aurreko eta ondoko laguntzak ez dira proiektu aktibotzat joko baldintza hori betetzeari begira. Salbuespen bakarrak izango dira proiektu jakin bat garatzeko finantzaketa barne hartzen direnak, kontratuaren beraren finantzaketaz gain.

4.4 Laguntza hau eskatu nahi duten Eusko Jaurlaritzako eta UPV/EHUko ikertalde aktibo bateko ikerketa taldeko kide diren eskatzaileek behar bezala justifikatu beharko dute mugikortasun hori ezin dutela egin eskuragarri dauden funtsekin.

5. oinarria. MUGIKORTASUNERAKO HARRERA GUNEAREN EZAUGARRIAK ETA EGONALDIAREN BALDINTZAK

5.1 Harrera guneak eta UPV/EHUko ikertzailea hartuko duen pertsonak ezaugarri hauek izango dituzte:

- Harrera guneak dira laguntzen onuradunak mugikortasun egonaldian zehar hartuko dutenak eta proiektua bertan egingo dute. Harrera zentroak izan daitezke bai unibertsitateak bai bestelako zentroak, baldin eta ikerketa jarduerak egiten badituzte eta diru laguntzaren eskaeran adierazitako proiektuaren arlo zientifikoan prestigio akademikoa eta ikerketakoa badute; hartara, proiektuaren helburu zientifikoak eta hobekuntza profesionala lortzeko bermeak eskainiko dira.
- Harrera zentroek, edonola ere, bizilekuz aldatzea eskatuko diote hautagaiari mugikortasunak iraun bitartean.
- Helburuko gunean ikertzaileari harrera eginen dion pertsonak ikerketa esperientzia handia izango du, ikerketa arlo jakin horretan.

Doktorego aurreko egonaldien kasuan, doktorego tesiaren nazioarteko aipamena egiteko helburuarekin, oinarri honetako a) eta c) atalak betetzeko, doktorego programaren Batzorde Akademikoak eta Doktorego Eskolak abalaturako beste erakunde batean egindako egonaldiaren eranskina aurkeztu beharko da.

5.2 Egonaldiaren baldintzak

- Zentro hartzaileko egonaldiak etenik gabe egin beharko dira. Laguntza emateko hasierako baldintzak aldatzen dituen edozein absentzia edo gorabehera gertatu aurretik, Ikerketako Zuzendaritza Nagusiak baimena eman beharko du, arrazoitutako idazki baten bidez. Idazki hori helbide honetara bidali beharko da: rrhh-inves.dgi@ehu.eus. Nolanahi ere, zentro hartzaileko arduradunaren adostasuna beharko da.
- Aldaketek ezingo dituzte aldatu emakida baldintzak, ez lanean hasteko epeetan, ez egonaldian, ez proiektuan, ez ikertzailearen epean, ez zentro hartzailean, behar bezala egiaztatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.
- Egonaldia aldi baterako etetea eskatuz gero, etenaldia ezin izango da 2 hilabetetik gorakoa izan, betiere egonaldiaren guztizko iraupena ez bada ezarritako gutxienerakoa baino txikiagoa. Nolanahi ere, etendako aldia ezin izango da berreskuratu.

6. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

6.1. Oro har, ostatu- eta mantenu-kostuak estaltzeko laguntzaren zenbatekoa egonaldia egiten den zentroaren herriaren eta egiaztatzen den egonaldiaren egun naturalen arabera zehaztuko da. Hasiera batean baimendutako epearen barruan ziurtutako egun bakoitzeko esleituko den zenbatekoa eguneko 30 euro izango da.

Horrez gain, beste kopuru bat ordainduko da, joan-etorriko bidaia bati aurre egiteko, honela banatuta:

Jatorritik helmugara bitarteko distantzia	Gehieneko kopurua
1.000 km arte	300 euro
1.001 eta 2.500 km bitartean	600 euro
2.501 eta 11.000 km bitartean	1.000 euro
10.000 km baino gehiago	1.200 euro

200 eurotako gehigarri bat emango da, bisatu bat izapidetzea beharrezkoa den joan-etorrietarako.

Bidaia laguntzak ez du barne hartuko tokiko garraioa.

Ez da finantzaketa gehigarririk emango mediku aseguruaren kontrataziorako, ikertzaileak mota honetako aseguruak eskatzen dituzten herrialdeetara bidaiatzen badu.

6.2 14/2011 legeren 21. artikulua bidez kontratatutako ikertzaileen kasuan, egonaldien gehieneko iraupena, otorduak laguntzen gehieneko zenbatekoa eta joan-etorrietarako laguntza Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko doktorego aurreko programaren barruan egonaldietarako urtero egiten duen deialdian zehaztutakoa izango da.

<https://www.euskadi.eus/informacion/ayudas-al-personal-investigador-estancias-predoctorales-egonlabur/web01-a3predoc/eu/>

6.3. Aurreko ataletan joan-etorri, lojamendu eta mantenu bideratu eta adierazitako gehieneko zenbatekoak gorabehera, laguntzen zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira joan-etorria hastean indarrean dagoen UPV/EHUren barne arautegiak zerbitzuengatik kalte-ordainei buruz dioenarekin.

6.4. Laguntza hauek bateragarriak dira egonaldietako gasturik onartzen duten deialdietatik etorritako beste batzuekin, beti ere, ez badira administrazio publikoek egonaldiak espezifikoki finantzatzeko helburuaz deitutako deialdiak. Nolanahi ere, gastuak justifikatu beharko dira beti jatorrizko fakturekin.

7. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

7.1. Eskatera ikertzaileak egin beharko du bere izenean, eta atxikita dagoen saileko edo institutuko kontseiluaren onospena izan beharko du.

7.2. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskatera, inprimaki normalizatuan, harrera gunera joateko bidaia egin baino 60 egun lehenago aurkeztu beharko dena, gutxienez. Horren ondoren aurkeztuz gero, %75eko aurrerakina jasotzeko eskubidea gal daiteke, horren likidazioa zuzenean eginda egonaldia amaieran eta egindako gastuak justifikatuz. Ezin izango da, inola ere, laguntzarik eskatu, behin egonaldia hasia bada.
- b. Ikertzaile eskatzailearen curriculum vitae formatu estandarizatuan (CVN edo CVA).
- c. Harrera ikerketako zentroko arduradunaren onarpen gutuna, baimendutako sinadura digitalarekin edo eskuz idatzitako sinadura originalarekin. Bigarren aukera hori aukeratuz gero (eskuz idatzitako jatorrizko sinadura), eta eskaeraren hautagarritasuna aztertze aldera soilik, erregistro elektronikoen bidez aurkeztutako eskuzko sinadura eskaneatua onartuko da, eta baimena emateko baldintza izango da jatorrizko sinadurarekin dokumentua postaz bidaltzea.
- d. Helburuko gunean ikertzaileari harrera egingo dion ikertzailearen curriculum.
- e. Eskabidea prestakuntza bidean dagoen ikertzaile batek egiten badu, 4.3.d oinarrian aipatutako eranskina erantsiko zaio eskariari.
- f. Bisa behar den kasuetan, hura eskatu izanaren ziurtagiria. Edonola ere, bisa eduki beharko da, deialdi honetako 39.1 oinarrian ezarritako laguntzaren aurrerakina jasotzeko.
- g. Zinpeko aitortpena, non adieraziko baita eskatzailea ez dagoela deialdi honetako 2. oinarrian aurreikusitako egoeraren batean.

7.3. Eskariak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 35.1 oinarrian xedatutakoa.

7.4. Eskera aurkeztu beharko dira UPV/EHUren Egoitza Elektronikoa dagoen erregistro elektronikoen bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Mugikortasuna 2022".

8. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

8.1 Oro har, honako hauek dira esleipendunak hautatzeko kontutan hartuko diren alderdiak:

- a. Helburuko gunean ikertzaileari harrera egingo dion ikertzailearen curriculumuma (35 puntu).
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculumuma, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera kalkulatu dena (35 puntu).
- c. Egonaldian egin beharreko ikerketa jarduera/proiektuaren balioespena (30 puntu).

Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

8.2 Prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kasuan, 4. eta 5. oinarrietan ezarritako baldintzak betetzea nahikoa izango da laguntza emateko, betiere eskaera egiteko unean aurrekontua badago.

II. MODALITATEA: nazioarteko elkarte zientifikoetako zuzendaritza organoetan parte hartu.

9. oinarria. LAGUNTZAREN HELBURUA

Modalitate honen helburua UPV/EHUko ikertzaileek nazioarteko elkarte zientifikoetako zuzendaritza organoetan parte har dezatela sustatzea da.

10. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

10.1 Deialdiaren modalitate honetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da UPV/EHUko kolektibo hauetako batekoa izatea:

- a. UPV/EHUri modu iraunkorren lotutako doktore funtzionarioak edo lan-kontratadunak.
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/20211 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako langileak (itzal handiko ikertzaileak); UPV/EHUn kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHUri lehenengo mailako adskripzioa duen Ikerbasque programako pertsonala, UPV/EHU-CSIC ikergune mistoei atxikitako doktoreak eta irakasle atxikiak; irakasle elkartuak; irakasle laguntzaile doktoreak.

b puntuan zerrendatutako langile ez-iraunkorren kasuan, beharrezko baldintzak izango dira UPV/EHUn gutxienez urtebeteko antzinasuna izatea eta UPV/EHUrekiko kontratuaren edo loturaren iraupenak gutxienez finantzaketarako proposatutako ekintza amaitu arteko aldi osoa betetzea.

Ezingo dute parte hartu deialdiaren modalitate honetan egoera hauetako batean dauden pertsonak: obra edo zerbitzu baterako (PIC) edo denbora jakin baterako Europako funtsen kontura edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23 bis artikulua bidez kontratatutako langileak.

11. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

11.1. Honako gastu hauek sartuko dira: nazioarteko elkarte zientifikoetako zuzendaritza organoen biltzarretara joateari eta horietan parte hartzeari loturiko bidaia, ostatu eta mantenu gastuak. Gastu horiek eskatzailearen izen-deituraz eta NAN zenbakiaz agertuko dira. Ez da UPV/EHUren izenean jarritako gasturik onartuko. Diru laguntzaren zenbatekoa bilera egingo deneko herriaren arabera zehaztuko da.

11.2. Esleituko diren zenbatekoek balio maximo hauek izango dituzte:

- Espainiako Estatuko herriak: 800 € eskaera bakoitzeko.
- Europako herriak: 1.300 € eskaera bakoitzeko.
- Europatik kanpoko herriak: 1.900 € eskaera bakoitzeko.

11.3. Norberaren ibilgailua erabiliz gero, eta gehienez ere 2.000 km-tara arte (joan-etorria), kilometro kopuruari dagokion tarifa aplikatuko da, 11.5. atalean adierazitakoaren arabera.

11.4. Laguntzaren esleipena eta ordainketa finkatutako prozeduraren arabera egingo dira, eta interesdunek, egindako gastuen jatorrizko egiaztagiriekin batera, biltzarrean parte hartu izanaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, biltzarra deitu duen erakundeak igorria.

11.5. Aurreko ataletan adierazitako gehieneko zenbatekoak gorabehera, laguntzen zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira joan-etorria hastean indarrean dagoen UPV/EHUren barne arautegiak zerbitzuengatik kalte-ordainei buruz dioenarekin.

11.6. Laguntza hauek ez dira bateragarriak administrazioak eman dezakeen beste edozein diru laguntzarekin, baldin eta helburu bera badute.

12. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

12.1. Eskaera ikertzaileak egin beharko du bere izenean eta atxikita dagoen saileko edo institutuko kontseiluaren onspena izan beharko du.

12.2. Eskarrietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskera, inprimaki normalizatuan. Elkarte zientifikoak antolatutako biltzarra hasi baino gutxienez 60 egun lehenago aurkeztu beharko da inprimakia.
- b. Bileraren deialdi ofizialaren kopia eta dagozkion zuzendaritza organoetako kide izatearen egiaztagiriaren kopia.
- c. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.

12.3. Deialdi honetako modalitate hau era deszentralizatuan gauzatzen da; hortaz, eskaerak dagozkion campusetan aurkeztu beharko dira. Hona hemen helbideak:

- **Arabako campusa:** Eskaerak aurkeztu beharko dira UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen erregistro elektronikoaren bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, "Arabako campuseko Errektoreordetza (U02000008)" adierazi beharko da, eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Nazioarteko elkarte zientifikoetan parte hartzea"
- **Bizkaiko Campusa:** Eskaerak honetara aurkeztu beharko dira:
 - UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen erregistro elektronikoaren bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, "Bizkaiko campuseko Errektoreordetza (U02000009)" adierazi beharko da, eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Nazioarteko elkarte zientifikoetan parte hartzea"
 - Honetarako, Bizkaiko campuseko errektoreordetzaren webgunean (<http://www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/bidai-poltsak>) eskura daitekeen aplikazioaren bidez.
- **Gipuzkoako Campusa:** Eskaerak honetara aurkeztu beharko dira:
 - UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen erregistro elektronikoaren bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, "Gipuzkoako campuseko Errektoreordetza (U020000010)" adierazi beharko da, eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Nazioarteko elkarte zientifikoetan parte hartzea"
 - Honetarako, Gipuzkoako campuseko errektoreordetzaren webgunean (<http://www.ehu.eus/eu/group/gipuzkoa/deialdiak/>) eskura daitekeen aplikazioaren bidez.

12.4. Eskariak aurkezteko epea: Ikus 36.1. oinarrian ezarritakoa.

13. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Laguntzak esleitzeko proposamenak campus bakoitzean egingo dira, eta campuseko errektoreordeek izendatutako batzordeek egingo dituzte.

Irizpide hauen arabera ebaluatuko dira eskaerak:

- a. Elkarte zientifikoaren garrantzia (50 puntu).
- b. Ikertzaile eskatzailearen curriculum, kolektibo bakoitzaren lan kategoriaren arabera (50 puntu).

Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

III. MODALITATEA: Nazioarteko ikerketa proiektuetan parte hartzea bultzatzea.

14. oinarria. LAGUNTZEN HELBURUA

Modalitate honen bidez, nazioarteko partzuergoetan ikertzaileen partaidetza sustatu nahi da, baldin eta partzuergo horien helburua bada nazioarteko programetarako proiektuen inguruko proposamenak prestatzea eta, bereziki, Horizon Europe deialdietan parte hartzea, bai eta nazioarteko plataforma, sare eta elkarteetan ere.

15. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

15.1 Deialdiaren modalitate honetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da UPV/EHuko kolektibo hauetako batekoa izatea:

- a. UPV/EHUri modu iraunkorren lotutako doktore funtzionarioak edo lan kontratadunak.
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/20211 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako langileak (itzal handiko ikertzaileak); UPV/EHUn kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHUri lehenengo mailako adskripzioa duen Ikerbasque programako pertsonala, UPV/EHU-CSIC ikergune mistoei atxikitako doktoreak; irakasle elkartuak; irakasle laguntzaile doktoreak; unibertsitate-ospitaleetako irakasguneetako irakasle elkartu doktoreak

b puntuan zerrendatutako langile ez-iraunkorren kasuan, beharrezko baldintzak izango dira UPV/EHUn gutxienez urtebeteko antzintasuna izatea eta UPV/EHUREKIKO kontratuaren edo loturaren iraupenak gutxienez finantzaketarako proposatutako ekintza amaitu arteko aldi osoa betetzea.

Ezingo dute parte hartu deialdiaren modalitate honetan egoera hauetako batean dauden pertsonak: obra edo zerbitzu baterako (PIC) edo denbora jakin baterako Europako funtsen kontura edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23 bis artikulua bidez kontratatutako langileak.

15.2 Eskatzaileak ikertalde aktibo bateko kide izan behar dira edo UPV/EHUn gauzatzen den ikerketa edo kontratu proiektuen batean parte hartzailea izan, zeinean unibertsitatea finantzaketaren onuraduna den, finantzaketaren jatorria edozein dela ere.

Doktore aurreko eta ondoko laguntzak ez dira proiektu aktibotzat joko baldintza hori betetzeari begira. Salbuespen bakarrak izango dira proiektu jakin bat garatzeko finantzaketa barne hartzen direnak, kontratuaren beraren finantzaketaz gain.

16. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

16.1. Laguntzen zenbatekoak burututako jardueraren arabera zehaztuko dira, eta 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean burututako jarduerari lotutako bidaia, ostatu eta mantenu gastuak finantzatzeko emango dira.

Burututako jardueraren arabera esleituko diren zenbatekoek gehieneko balio hauek izango dituzte:

- a. Koordinatzaile gisa proiektu proposamen bat aurkeztu izana nazioarteko programa batean; bereziki, Horizon Europe deialdietan: 3.500 euro gehienez, aurkeztutako proposamen bakoitzeko. Laguntza horri beste 3.000 euro gehitu ahal izango zaizkio, proposamena prestatzeko kontratatutako diren aholkulariei zerbitzu sariak ordaintzeko.
- b. Nazioarteko bileretan parte hartu izana, bileren helburua izan bada partzuergo bat sortzea proiektu proposamen bat aurkezteko nazioarteko programa batean; bereziki, Horizon Europe deialdietan: 1.900 euro gehienez, aurkeztutako proposamen bakoitzeko. Laguntza horri beste 1.500 euro gehitu ahal izango zaizkio, proposamena prestatzeko kontratatutako diren aholkulariei zerbitzu sariak ordaintzeko.
- c. Nazioarteko plataforma teknologikoen, sareen eta elkarten bileretan parte hartu izana, horien helburua izan bada UPV/EHUrako interesgarriak diren I+G+Bko estrategia kolektibo sektorialak sustatzea: 1.900 euro gehienez, akreditatutako kide bakoitzeko.
- d. Erakunde ofizialek *Work Programmes* direlakoak eta proposamenak ebaluatzeko irizpideak parte hartzaileei ulertarazten laguntzeko antolatutako topaketetan parte hartu izana. Topaketa horiek

ideien eta esperientzien trukea erraztu, eta partzuergo bat osatzeko balizko kideak ezagutzeko aukera ematen dute: 1.400 euro gehienez, ikertalde bakoitzeko.

16.2. Laguntza hauek bateraezinak dira administrazioak helburu berarekin eman ditzakeen beste diru laguntza batzuekin.

17. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

17.1. Eskaera ikertzaileak norberaren izenean bidali beharko du proyectoseuropeos@ehu.eus helbide elektronikora.

17.2. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan.
- b. Laguntzaren xede den jardueran parte hartzeko gonbidapen gutuna.
- c. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.

17.3. Eskariak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 36.1 oinarrian xedatutakoa.

18. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

18.1. Irizpide hauen arabera ebaluatuko dira eskaerak:

- a. Egin beharreko jardueraren garrantzia:
 - i. Nazioarteko programaren bateko deialdian elkarlaneko proiektu baterako proposamena aurkeztea koordinatzaile gisa (60 puntu).
 - ii. Nazioarteko batzarretan parte hartzea. Batzar horien xedea partzuergo bat eratzea izango da, nazioarteko programaren batean proiektu proposamen bat aurkezteari begira (40 puntu).
 - iii. Nazioarteko plataformetako bileretan parte hartzea (40 puntu).
 - iv. Erakunde ofizialek work progammes eta proposamenak ebaluatzeko irizpideak ulertarazteko antolatutako topaketetan parte hartu izana (40 puntu).
- b. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma, kolektibo bakoitzaren lan kategoriaren arabera (60 puntu).

18.2. Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

IV. modalitatea: Kongresu zientifikoak antolatzea

19. oinarria. BILTZARRAK ANTOLATZEKO LAGUNTZEN HELBURUA

Modalitate honen bidez, biltzar zientifikoaren antolaketa bultzatu nahi da UPV/EHUn, nazioartean gure unibertsitatearen irudia eta presentzia areagotze aldera.

20. oinarria. DIRULAGUNTZEN EZAUGARRIAK ETA BETEBEHARRAK:

20.1. Biltzar zientifikoak antolatzeko laguntzak eskatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a. Ahal dela, biltzarrak UPV/EHUn instalazioetan egin eta biltzarren antolatzaile gisa UPV/EHU agertzea. Salbuespen gisa, kongresu bat UPV/EHUn instalazioetatik kanpo egin ahal izango da, UPV/EHUn ezarritako komenigarria eta/edo onuragarria dela behar bezala justifikatzen bada. Nolanahi ere, bi gai horiek IKGBBk ebaluatuko ditu.
- b. Ekitaldiek nazioartekoak edo estatukoak izan behar dute, eta Ebaluazio Batzordeak baloratu beharreko garrantzi zientifikoak izan. Estatuko edo nazioarteko izaera deialdi honetako 23.a oinarrian ezarritakoaren arabera egiten den ebaluazioan zehaztuko da.
- c. Batzorde zientifikoak edukitzea. Batzorde horrek deialdi ireki baten bidez jasotako txostenak ebaluatu eta hautatuko ditu.
- d. Kongresua txandaka estatuko edo nazioarteko beste unibertsitate zein ikerguneetan antolatu edo egingo da.
- e. Biltzarren aurrekontua inskripzio kuotekin finantzatuta egotea nahitaez. Kuoten edo babesle pribatuen bidez lortutako finantzaketa osoa biltzarreko aurrekontuaren % 50 izango da gutxienez.

Kanpoko erakunde batek biltzarra diruz laguntzen badu edo inskripzio kuotak biltzen baditu UPV/EHUn bankuko kontuetan sarrerarik eragin gabe, zenbateko hori biltzarren aurrekontuan sartuko da ondorio guztietarako, UPV/EHUn kontabilitate ofizialean ez islatzeko aukera eragotzi gabe.

20.2. Laguntza emateko, ikertalde eskatzaileak kongresuaren iragarki bat aurkeztu beharko du, egingo den jardueraren berri emateko. Iragarki hori herritarrentzako hizkera ulergarrian idatzi beharko da eta balio izango du gizarteari azaltzeko kongresuaren edukia eta garrantzia, bai eta kongresua egiteak gizartearen duen eragina eta GJHein duen lotura ere. UPV/EHUn Komunikazio Bulegoak iragarki hau erabili ahal izango du UPV/EHUn egiten diren jardura zientifikoak zabaltzeko.

20.3 Ezin izango da laguntza hau eskatu, baldin eta kongresuak aurreikusten badu hizlariari ordaintzea kongresu hori antolatzeko lortzen den beste edozein finantzaziorerkin.

21. oinarria. IKERTALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

Jarduera zientifikoaren antolaketa egingo duten ikertaldeek 20.1 atalean jasotzen diren UPV/EHUn lotura motari dagozkion baldintzetako bat betetzen duten osakideak izango dituzte eta, ikertaldeak osatzeko 20.2 atalean zehazten dituen baldintzak beteko:

21.1. UPV/EHUn lotura motak:

- a. UPV/EHUn modu iraunkorren lotutako doktore funtzionarioak edo lan kontratadunak
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua arabera kontratatutako pertsona (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUn Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsona, UPV/EHUn lehenengo mailako adskripzioa duen Ikerbasque programari atxikitako pertsona, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsona doktorea; irakasle elkartuak; irakasle laguntzaile doktoreak; unibertsitate-ospitaleetako irakasguneetako irakasle elkartu doktoreak
- c. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. artikuluan (doktorego aurreko kontratuak), 22. artikuluan (doktorego ondoko kontratuak) jasotako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUn lotura duten langile ez-iraunkorrak; eta lan kontratadun bitarteko edo ordeko irakasleak, bi kasuetan doktoreak eta lanaldi osokoak..

- d. Unibertsitatearen arautegian ezarritako prozeduren arabera, ikerkuntzarako lankide akademikoak.

B, c eta d puntuetan zerrendatutako langile ez-iraunkorren kasuan, beharrezko baldintzak izango dira UPV/EHUⁿ gutxienez urtebeteko antzintasuna izatea eta UPV/EHUⁿrekiko kontratuaren edo loturaren iraupenak gutxienez finantzaketarako proposatutako ekintza amaitu arteko aldi osoa betetzea.

Doktorego aurreko prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kasuan, haien doktorego-tesiaren zuzendaria ere kongresua antolatzen duen taldeko kidea izango da.

21.2. **Ikertaldeak osatzeko baldintzak:**

- a. Ikertalde eskatzailea 21.1.a atalean adierazitako kolektiboetako hiru ikertzaile doktorek osatuko dute gutxienez.
- b. Hiru pertsona hauek ikertalde aktibo bateko kide izan beharko dute, edo UPV/EHUⁿ gauzatzen den ikerketa proiektu edo kontraturen batean parte hartzea, baldin eta unibertsitatea finantzaketaren onuradun bada, finantzaketaren jatorria edozein izanda ere.
- c. 21.1.a atalean aipatutako hiru kideetako bat eskaeraren koordinatzailea izango da. Pertsona horrek koordinatzaile gisa agertu beharko du biltzarra bera finantzatzeko beste erakunde batzuetan aurkezten diren eskabide guztietan.

22. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

22.1. Esleituko den laguntzaren zenbatekoa jarduera burutzeko kontabilizatutako gastu osoaren % 25 izango da, gehienez. Zenbatekoa ez da inoiz izango 6.000 eurotatik gorakoa, nazioarteko biltzarren kasuan, ezta 3.000 eurotatik gorakoa ere estatuko biltzarren kasuan, eta 20.e oinarrian kuota eta babesletza pribatu kontabilizatuei buruz ezarritako % 50eko muga errespetatuko da.

Nolanahi ere, laguntzaren zenbatekoa kuota ordaindu duten pertsonen kopuruaren arabera izango da. Hortaz, justifikazioa egiterakoan, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, kongresura joandakoen eta ordaindutako kuoten kopuruak azalduz bai eta egindako gastu eta dirusarrera guztiak ere, hautagarriak izan zein ez.

22.2. 1.000 eurotako laguntza gehigarria emango zaie kongresuan biltzarraren gaiarekin zerikusia duen dibulgazio-jarduera bat (hitzaldia, mahai-ingurua, tailerra, edo beste modalitate batzuk) sartzeko konpromisoa hartzen duten eskaerei. Jarduera hau, kongresuaren programaren barruan dagoena, gai honetan espezializatuta ez dagoen publiko orokorrari irekia eta iragarria izango da, eta gutxienez ordubeteko iraupena izango du.

22.3. UPV/EHUko langileei ezin izango zaizkie ordaindu ezelako soldata osagarriak edo ordainsariak, deialdi honen laguntzak jasotzen dituzten biltzarretan parte hartzeagatik. Ezingo dira kongresuko gastu gisa jo hizlariei egindako ordainketak.

22.4. Laguntza hauek bateraezinak dira UPV/EHUⁿ helburu berarekin eman ditzakeen beste diru laguntza batzuekin. Biltzarra amaitu ondoren superabita izanez gero, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak hartuko du.

22.5. Kongresu bati esleitutako laguntzaren erabilerak honako muga hauek izango ditu:

- a. Esleitutako laguntza biltzarrerako erabiliko da, inskripzio kuotak kobratzen diren eta benetan jasotako babesletza pribatuen proportzio berean.
- b. Eskaeran aurreikusitakoaren aurka, kuotak kobratuko ez balira, Errektoreordetzak laguntzaren zati bat kendu ahal izango du, kobratutako kuoten benetako ehunekora egokituta.
- c. Diru laguntza ez da erabiliko otorduak, ekintza ludikoak, protokolo gastuak edo partaideentzako opariak ordaintzeko, ez baitira gastu hautagarritzat joko. Dena den, bai hartuko da gastutzat "coffee break" izenekoak.
- d. Halako gasturik egonez gero, UPV/EHUⁿ ordaindutakoaz gaindiko finantzaketarekin eta halako gastuak berariaz kanpo uzten ez dituzten beste laguntza batzuekin bakarrik ordaindu ahal izango dira. Hautagarriak ez direnez, gastu horiek ez dira aintzat hartuko inskripzio kuoten eta babesletza pribatuen % 60 kalkulatzeko.

- e. Gastuen artean ikasleei laguntzak ematea aurreikusten bada, gastu hori hautagarritzat hartzeko ezinbestekoa izango da diru kopuruak eta horiek emateko irizpideak aipatzea eskaeran eta biltzarraren dokumentazioan.

23. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

23.1. Eskaera jarduera koordinatzen duen ikertzaileak aurkeztu beharko du.

23.2. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan. Biltzarra hasi baino gutxienez bi hilabete lehenago aurkeztu beharko da inprimakia.
- b. Biltzarraren aurreko egitaraua, batzorde zientifikoaren eta batzorde antolatzailearen zerrenda, eta txostenen deialdia (call for papers).
- c. Ikertaldeak dituen baterako finantzaketari buruzko dokumentuak (emanak edo eskatuak).
- d. Biltzarraren aurrekontu osoa justifikatzen duen dokumentazioa.
- e. Ikertalde eskatzaileko hiru kideren curriculum osoa (gutxieneko ikertaldea).
- f. Biltzarra UPV/EHUren aretoetan egiten ez bada, horren justifikazioa.
- g. Taldeko kide guztiek sinatutako zinpeko aitortpena, non adieraziko baita eskatzailea ez dagoela deialdi honetako 2. oinarrian aurreikusitako egoeraren batean.

23.3. Eskariak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 36.1 oinarrian xedatutakoa.

23.4. Eskaerak aurkeztu beharko dira UPV/EHUren Egoitza Elektronikoa dagoen erregistro elektronikoa bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Kongresuen antolaketa 2023".

24. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipendunak hautatzeko, kontuan hartuko dira irizpide hauek:

- a. Biltzarraren kalitatea eta aintzatespena nazioartean (35 puntu).
- b. Jarduerak batera finantzatzeko funtsak izatea (30 puntu).
- c. Talde eskatzailearen ekoizpen zientifikoa (35 puntu).

Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

V. MODALITATEA: Ekintza bereziak

25. oinarria. HELBURUA

Modalitate honen bidez, ikerketa jarduerari loturiko esku hartze berezi eta puntualen bat eskatzen duten helburu zientifikoak ordaindu nahi dira.

25.1 Oro har, IGBBk kasu bakoitzean proposatutako ekintza berezien berezitasuna edo salbuespena hartuko du kontuan.

25.2. Ekintza berezizat hartuko da ikerketa jardueran sortutako ikerketa emaitzak argitaratzea, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- a. Argitaratu den aldizkariak JCR, Scopus edo baliokidearen eragin handia duenean.
- b. Artikulua sinatu duten pertsonetatik inork ez duenean ikerketa jarduera edo ikertalde batean parte hartzen, artikulua gastu hautagarri gisa argitaratzea aurreikusten duen finantzaketarekin.

Bibliotekak argialetxeekin sinatutako akordioetan argitalpena ez sartzea.

25.3. Ez dira "ekintza berezizat" hartuko honako hauek:

- a. Kanpoko elkarte edo erakunde baten finantzaketa, aurretik den proiektu batekin zuzeneko lotura izan arren.
- b. Azpiegiturak eskuratzea, aldatzea edo handitzea.
- c. Ikerketa proiektu berrizat edo abian den proiektu baten osagarritzat har daitekeen ikerketa jarduera.
- d. Ikastaroak antolatzea eta haietara joatea.
- e. Workshopak antolatzea.
- f. Ikerketa egonaldiak egitea.
- g. Kanpoko zerbitzuak kontratatzea.

26. oinarria. IKERTALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

Ikertaldeek 26.1 atalean jasotzen diren UPV/EHUrekiko lotura motari dagozkion baldintzetako bat betetzen duten osakideak izango dituzte eta, ikertaldeak osatzeko 26.2 atalean zehazten dituen baldintzak beteko:

26.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:

- a. UPV/EHUri modu iraunkorren lotutako doktore funtzionarioak edo lan kontratadunak
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua araberako kontratatutako pertsona (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUⁿ Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsona, UPV/EHUri lehenengo mailako adskripzioa duen Ikerbasque programari atxikitako pertsona, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsona doktorea; irakasle elkartuak; irakasle laguntzaile doktoreak; unibertsitate-ospitaleetako irakasguneetako irakasle elkartu doktoreak
- c. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikuluan (doktorego aurreko kontratuak), 22. artikuluan (doktorego ondoko kontratuak) jasotako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUrekin lotura duten langile ez-iraunkorrek; eta lan kontratadun bitarteko edo ordezkari irakasleak, bi kasuetan doktoreak eta lanaldi osoak.

B eta c puntuetan zerrendatutako langile ez-iraunkorren kasuan, beharrezko baldintzak izango dira UPV/EHUⁿ gutxienez urtebeteko antzintasuna izatea eta UPV/EHUrekiko kontratuaren edo loturaren iraupenak gutxienez finantzaketarako proposatutako ekintza amaitu arteko aldi osoa betetzea.

Doktorego aurreko prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kasuan, haien doktorego-tesiaren zuzendaria ere kongresua antolatzen duen taldeko kidea izango da.

Ezingo dute parte hartu deialdiaren modalitate honetan egoera hauetako batean dauden pertsonak: obra edo zerbitzu baterako (PIC) edo denbora jakin baterako Europako funtsen kontura edo Zientzia,

Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23 bis artikulua bidez kontratatutako langileak.

26.2. Ikertaldeak osatzeko baldintzak:

- a. Ikertalde eskatzailea deialdi honen 26.1.a atalean adierazitako kolektiboetako hiru ikertzaile doktorek osatuko dute, gutxienez.
- b. Ikerketa talde aktibo bateko kide izatea, finantzaketarekin edo finantzaketarik gabe, edo UPV/EHUn gauzatzen den ikerketa proiekturen edo kontraturen batean parte hartzea, baldin eta unibertsitatea finantzaketaren onuradun bada, finantzaketaren jatorria edozein izanda ere.
- c. 26.2.a atalean aipatutako hiru kideetako bat eskaeraren ikertzaile nagusia (IN) izango da.

27. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

27.1. Gehienez 3.000 eurotako laguntzak emango dira.

27.2. Mugikortasun deialdi honen onura jasotzen duten ekintza berezietan parte hartzen duten UPV/EHUKo langileei ez zaizkie emango ezelako soldata osagarriak edo ordainsariak.

27.3. Modalitate honetako laguntzak bateragarriak dira beste entitate finantzatzaile batzuek emandakoekin, baldin eta jarduera burutzeko finkatutako aurrekontu osoa gainditzen ez bada, deialdi honen helburuak eta xedeak eta kontrakoa esan dezaketen gainerako deialdien xedapenak eragotzi gabe.

28. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

28.1. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan.
- b. Ikertalde eskatzaileko hiru kideren curriculum osoa (gutxienezko ikertaldea).
- c. Taldeko kide guztiek sinatutako zinpeko aitorpena, non adieraziko baita eskatzailea ez dagoela deialdi honetako 2. oinarrian aurreikusitako egoeraren batean.

28.2. Eskariak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 36.1 oinarrian xedatutakoa.

28.3. Eskaerak aurkeztu beharko dira UPV/EHUren Egoitza Elektronikoa dagoen erregistro elektronikoa bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Rudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Ekintza bereziak 2023".

29. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

29.1. Eskatutako ekintzak ondo justifikatu behar du zergatik ezin den beste deialdi publiko batzuen bidez finantzatu. Irizpide hori bete egin behar da, finantzaketa lortu nahi bada.

29.2. Irizpide hauen arabera egingo da balorazioa:

- a. Proposamenaren kalitate zientifikoa eta teknikoa (helburuak, eduki berritzailea, metodologia, lan plana...), eta haren bideragarritasuna, talde eskatzailearen ikerketarako ahalaren arabera (40 puntu).
- b. Eskaeraren ikertzaile nagusiak eta gainerako ikertalde kideek aurrez eginiko ikerketa jarduera eta jarduera horren kalitatea. Talde eskatzailearen kalitatea, tamaina, osaera eta dedikazioa balioetsiko dira (30 puntu).
- c. Eskatutako baliabideak proposatutako helburuetara egokitzea (30 puntu).

Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

VI. MODALITATEA. Ikertzaileen mugikortasuna, Zientzia, Teknologia Eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileetan (ZTBES) 15-90 egun bitarteko egonaldiak egiteko.

30. oinarria. EGONALDIEN HELBURUA

Honako modalitate honen bidez, erraztu nahi da UPV/EHUko ikertzaileek egonaldiak egin ditzatela zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sareko eragileetan, unibertsitatearen eta enpresa edo bestelako eragileen arteko jakintza eta esperientzien elkartrukeari bide emanez.

31. oinarria. EGONALDIEN EZAUGARRIAK

31.1. Egondialdiak 15 eta 90 egunen arteko iraupena izango du eta helburu argi bat planteatuko da, non unibertsitate lankidetzak beharrezko izango baita, elkarren intereseko prozedurak berri edo problemak ebazteko.

31.2. Ikertzaileek bakoitzak deialdi honetako laguntza eskari bakarra aurkeztu ahal izango du, indarrean dirauen bitartean.

32. oinarria. ESKATZAILEEN ETA MUGIKORTASUNERAKO HARRERA GUNEAREN EZAUGARRIAK

Ikertzaileek laguntza hauek jaso ahal izango dituzte, baldin eta UPV/EHUrekiko enplegu loturaren motaren baldintzak eta 32.1 eta 32.2 eta hurrengo ataletan jasotako baldintza partikularrak betetzen badituzte.

32.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:

- a. UPV/EHU^{ri} modu iraunkorren lotutako doktore funtzionarioak edo lan kontratadunak
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua araberak kontratatutako pertsona (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUⁿ Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsona, UPV/EHU^{ri} lehenengo mailako adskripzioa duen Ikerbasque programari atxikitako pertsona, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsona doktorea; irakasle elkartuak; irakasle laguntzaile doktoreak;
- c. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. artikuluan (doktorego aurreko kontratuak), 22. artikuluan (doktorego ondoko kontratuak) jasotako kontratu modalitateen bidez UPV/EHU^{rekin} lotura duten langile ez-iraunkorrek; eta lan kontratadun bitarteko edo ordeko irakasleak, bi kasuetan doktoreak eta lanaldi osokoak..

B eta c puntuetan zerrendatutako langile ez-iraunkorren kasuan, beharrezko baldintzak izango dira UPV/EHUⁿ gutxienez urtebeteko antzinatasuna izatea eta UPV/EHU^{rekin} kontratuaren edo loturaren iraupenak gutxienez finantzaketarako proposatutako ekintza amaitu arteko aldi osoa betetzea.

Ezingo dute parte hartu deialdiaren modalitate honetan egoera hauetako batean dauden pertsonak: obra edo zerbitzu baterako (PIC) edo denbora jakin baterako Europako funtsen kontura edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23 bis artikulua bidez kontratatutako langileak.

31.2. Eskatzaileen baldintza partikularrak:

- a. Ikerketa talde aktibo bateko kide izatea, finantzaketarekin edo finantzaketarik gabe, edo UPV/EHUⁿ gauzatzen den ikerketa proiektuaren edo kontratuaren batean parte hartzea, baldin eta unibertsitatea finantzaketaren onuradun bada, finantzaketaren jatorria edozein izanda ere.
- b. Mugikortasunak, gutxienez, udalerritik aldatzea ekarri behar du, hortaz, ez da finantzatutako eskatzailearen langunea daukan udalerririk berean kokatutako guneetan egindako egonaldiak.
- c. Programa honetako laguntzarik ez izatea, ez eta ezaugarri bertsuko beste batekorik ere.

32.3. Harrera erakundearen eta UPV/EHUko ikertzailea hartuko duen pertsonaren ezaugarriak.

- a. Harrera erakunde izango dira laguntzen onuradunek proiektua egonaldian zehar lantzeko darabiltzaten guneak, diru laguntzarako eskarian aurkeztutako proiektuaren eremu zientifikoan

jarduerarik egiten duen ZTBESeko edozein eragile, beti ere proiektuaren zientzia helburuak eta hobetze profesionalak lortu ahal izateko berme eta bitarte bada, Eragile dira honako hauek:

- i. Eragile bakanak.
 - ii. Unibertsitateetako ikerkuntza egiturak.
 - iii. Oinarrizko eta bikaintasunezko ikerguneak.
 - iv. Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren zabaltzeko eragileak.
 - v. Osasun ikerkuntzarako institutuak (OII).
 - vi. Osasungintzaren I+G antolakuntza.
 - vii. Teknologia gune foku aniztunak
 - viii. Teknologia gune sektorialak
 - ix. Ikerketa kooperatiboko guneak (IRG)
 - x. Enpresarako I+G unitateak.
 - xi. Eskaria/eskaintza bitartekaritza eragileak.
- b. Harrera erakundeak inskribaturik beharko du egon, eskaria aurkezten denean, ZTBESren erregistroan: <https://www.innobasque.eus/microsite/innovacion-en-euskadi/red-vasca-cti/red-vasca-de-ciencia-tecnologia-e-innovacion>
- c. Helburuko gunean ikertzaileari harrera eginen dion pertsonak ikerketa esperientzia handia izango du, ikerketa arlo jakin horretan.

33. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

33.1. Laguntzak bi kontzeptu ditu:

- a. Mantenu kostuak: Gehienez, 21 euro ordainduko dira egonaldiko lanegun ziurtatu bakoitzeko, hasieran baimendutako aldia kontuan hartuta.
- b. Joan-etortzeko kostuak: Laguntzen gehieneko zenbatekoak gorabehera, laguntzen zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira joan-etorria hastean indarrean dagoen UPV/EHUren barne arategiak zerbitzuengatik kalte-ordainei buruz dioenarekin. Joan-etorriak, ahal dela, garraio publikoaren bidez egingo dira, eta ez dira garraio propioko joan-etorriak finantzatuko, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik. Inola ere ezingo da gainditu 300 euroko gehieneko zenbatekoa diruz lagundutako egonaldi bakoitzeko.

33.2. Laguntza hauek bateraezinak dira helburu bera izango duen beste edozein laguntzarekin.

34. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

34.1. Eskara ikertzaileak egin beharko du bere izenean, eta atxikita dagoen saileko edo institutuko kontseiluaren onspena izan beharko du.

34.2. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskara, inprimaki normalizatuan, gutxienez, mugikortasuna hasi baino hilabete bat lehenago aurkeztu beharko dena.
- b. Harrera erakundearen arduradunaren onarpen gutuna. Gutun hori eskuz sinatuta egongo da, edo baimendutako sinadura digitala izango du. Ez dira onartuko, inola ere, eskaneatutako gutunak.
- c. Helburuko gunean ikertzaileari harrera egingo dion ikertzailearen curriculuma. [PDF formatuan aurkeztuko da, ez bestela.](#)
- d. Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari lizentzia eskatu izanaren frogagiria.
- e. Prestatzen ari diren ikertzaileek doktorego tesiaren zuzendariaren edo zuzendarien baimena aurkeztu beharko dute.
- f. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.

g. Zinpeko aitortpena, non adieraziko baita eskatzailea ez dagoela deialdi honetako 2. oinarrian aurreikusitako egoeraren batean.

34.3. Eskariak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 36.1 oinarrian xedatutakoa.

34.4. Eskaerak aurkeztu beharko dira UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen erregistro elektronikoren bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "ZTBES mugikortasuna 2023".

35. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Honako hauek dira esleipendunak hautatzeko kontutan hartuko diren alderdiak:

- a. Helburuko gunean ikertzaileari harrera egingo dion ikertzailearen curriculum (20 puntu).
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculum, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera kalkulatu dena (40 puntu).
- c. Egonaldian egin beharreko ikerketa jarduera/proiektuaren balioespena (40 puntu).

Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA OROKORRA

36. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

36.1. Deialdi honetako modalitate ezberdinak irekita mantenduko dira hurrengo deialdia argitaratu arte, egungo deialdia baliogabetuko duena, edo erabilgarri den kreditua agortu arte, hala gertatuko balitz, argitaratu eta jakinaraziko dena, oro har, jakin dadin.

36.2. Modalitate guztietan, dagokion eskaerarekin batera, zinpeko adierazpena aurkeztuko da, 2. oinarrian ezarritako egoeraren batean ez egotearen berri emateko.

- a. I., II., III. eta VI. modalitateetan, adierazpena laguntzaren eskatzaileak sinatuta egongo da.
- b. IV. eta V. modalitateetan, adierazpena jarduera egingo duen taldeko kide guztiek sinatuta egongo da.

37. oinarria. LAGUNTZAK GESTIONATZEKO ORGANOA

Ikerketaren arloko errektoreordeak, Ikerketaren gestiorako zuzendaritzaren bidez, deialdi honetako I., IV., V. eta VI. modalitateetan aurreikusitako laguntzak kudeatuko ditu; Ikerketaren arloko errektoreordeak, Nazioarteko I+G bulegoaren bidez, III. modalitatekoak kudeatuko ditu; eta, campuseko errektoreordetzek, berriz, II. modalitateko laguntzak kudeatuko dituzte.

38. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

38.1. Deialdiko modalitate guztietarako eskaerak edozein unetan aurkez daitezke, deialdia indarrean dagoen bitartean.

Hala ere, laguntzak eman edo ukatuko dira, horiek onartzeko moduaren arabera:

- a. I, IV, V eta VI. modalitateetarako eskariak. Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak ebaluatzen ditu; hortaz, horiek berrikusi ahal izateko, batzordea noiz biltzen den hartu beharko da kontuan, Batzordearen barne arautegian ezarritakoaren arabera.
- b. II. eta III. modalitateetako eskaerak. Eskaeren inguruko erabakia campuseko errektoreordetzek eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ematen dute, zuzenean, eta, horrela, azkar erantzun dakieke jasotako eskaerei.

38.2. Aurkeztutako eskaerak ebaluatzeko, modalitate bakoitzeko ataletan zehaztu diren irizpideak erabiliko dira. Hala behar izanez gero, kanpo ebaluazioak egingo dira, jakintza arlo bakoitzeko aditu independenteen bidez.

38.3. Ebaluazio prozesuan eskaerak ebaluatzeaz arduratzen den organoak edo, hala badagokio, kanpoko ebaluatzaileek hala proposaturik, aurkeztutako eskaeretan aldaketak egitea proposatu ahal izango die eskatzaileei, deialdi honen helburuetara hobeto egokitzeko. Ebaluazio prozesuan ikertaldeko buruari ebaluatzaileekin biltzeko eskatu ahal izango zaio, eskaeraren inguruko azalpen eta xehetasun gehiago emateko.

38.4. Eskariak ukatu ahal izango dira, baldin eta jarduera programek gehiegizko aurrekontua badakarte eta, eskatutako laguntzaz gain, proposatutako finantzaketa iturrien bidez nekez lor daitekeela irizten bada.

38.5. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egindako deialdietan, ikertzaileek UPV/EHUren bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa.

39. oinarria. ERABAKIA

39.1. I., IV., V. eta VI. modalitateetan parte hartuko duen UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak, ebaluazioa egin ondoren, Ikerketaren arloko errektoreordeari aurkeztuko dio laguntzak esleitzeko proposamena.

39.2. II. modalitateari dagokionez, campusetako errektoreordetza bakoitzean eratutako batzordeek, ebaluazioa egin ondoren, campusetako errektoreordeei aurkeztuko diete laguntzak esleitzeko proposamena. Deialdi hau gehienez bi hilabeteko epean erabakiko da, eskaerak aurkezteko egunetik

zenbatzen hasita. Aipatutako epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaerak ezetsi egin direla ulertuko da.

39.3. III. modalitateari dagokionez, Nazioarteko I+G Bulegoak laguntzak esleitzeko proposamena bidaliko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, hamabost eguneko epean gehienez, eskaerak aurkezteko egunetik zenbatzen hasita. Aipatutako epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaerak ezetsi egin direla ulertuko da.

39.4. Ikerketaren arloko errektoreordearen edo tokian tokiko campuseko errektoreordeen erabaki nominalaren bidez jakinaraziko zaio ikertzaile bakoitzari eskaera onartu zaion ala ez, eta baiezkoen kasuan, zenbateko laguntza emango zaion. Eskatzen badute, ebaluatze eta hautatzeko irizpide bakoitzean lortutako puntuazioaren berri emango zaie eskatzaileei. Nolanahi ere, ezespren partzial zein osorik daramaten erabakiak arrazoituak izango dira.

39.5. Adjudikazioaren gaineko erabakian, emandako laguntza bakoitzari buruz honako hauek aipatuko dira:

- Ikertzaile nagusiaren izen-deiturak.
- Ikertzaile nagusiaren saila edo institutua.
- Jardueraren izenburua.
- Jarduerak iraungo duen urte bakoitzerako esleitutako zenbatekoa, urtebetetik gorakoak badira.

39.6. Aipatutako erabakiaren kontra, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da berori hartu duen organoaren aurrean hilabeteko epean Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 123. eta 124. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz. Era berean, aipatu ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

40. oinarria. DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

40.1. I. modalitatean, esleitutako zenbatekoaren % 75 ordainduko zaio eskatzaileari, emateko erabakia argitaratu ondoren. Gainerakoa jarduera egin, eta egindako gastuen justifikazioa aurkeztu eta onetsi ondoren ordainduko da, egonaldia amaitu eta, gehien dela, bi hilabete iragan baino lehen.

40.2. II. modalitaterako, laguntzaren ordainketa gastuen justifikazioa aurkeztu ondoren egingo da. Ikertzaileek justifikazioa aurkezteko hamabost egunen epea izango dute, bidaiak egin eta gero. Gehieneko zenbatekoa erabakian adierazitakoa izango da.

Egindako gastuak justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- i. Egindako gastuaren ziurtagiri originala.
- ii. Behar denean, nazioarteko plataformetan lortutako emaitzen txosten laburra.

40.3. IV. modalitaterako, jarduera kudeatzeko erabiliko den organikoari esleitutako zenbatekoaren % 75eko kreditu zuzkiduran zehaztuko da laguntza, ebazpena argitaratu eta 20.2 oinarrian ezarritako betekizuna bete ondoren. Gainerako zenbatekoa, 22.2 oinarria betetzeko emandako kopuru gehigarria izan ezik, modu proportzionalean ordainduko da, benetan jasotako kuota eta babesle pribatuen gaineko 20.e ataleko diru-sarrerak jasotzearekin bat etorritik, eta deialdi honetako 22.4 paragrafoan ezarritako mugak alde batera utzi gabe. 22.2 oinarrian aipatutako kopuru gehigarria eman bada, programatutako dibulgazio jardueraren iragarkia aurkeztean ordainduko da.

Jarduera burutzen denean eta amaierako txostena eta eginiko gastuen justifikazio osoa aurkeztu ostean, sarreren eta gastuen balantzea egingo da, eta jarritako kreditutik erabili ez den diru kopurua Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdi bereko diru laguntza berrietan erabiliko da.

40.4. V. modalitateetan, diru jarduera kudeatzeko organikoari esleitutako zenbatekoaren % 100eko kreditu zuzkiduran zehaztuko da laguntza, erabakia argitaratu ostean. Jarduera burutzen denean eta amaierako txostena eta eginiko gastuen justifikazio osoa aurkeztu ostean, sarreren eta gastuen balantzea egingo da, eta jarritako kreditutik erabili ez den diru kopurua Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdi bereko diru laguntza berrietan erabiliko da.

40.5. VI. modalitaterako, laguntza, jarduera egin eta gastuen justifikazioa aurkeztu eta onetsi ondoren ordainduko zaio. Egindako gastuen justifikatzeko, aurkeztu beharreko ziurtagiriak aurkeztuta egingo da, egonaldia amaitu eta hilabetearen epea amaitu baino lehen agertuz. Gerora aurkeztuko balira, diru laguntza gal liteke. Honez gain, harrerako ikerketa gunearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Bertan, egonaldiaren datak adieraziko dira, eta gauzatutako jardueren deskribapen labur bat.

40.6. I., II., III. eta VI. modalitateetan eginiko gastuen justifikazio gisa, laguntza eskatu dutenek eginiko ordainketen agiriak aurkeztu beharko dira:

a. Bidaiak: txartelak, ontziratze txartela eta tiket originalak eskatuko dira horiek ziurtagiri gisa, eta horien faktura edo ordainketa frogagiriak.

I. modalitatean ez dira bidaiak txartelak onartuko egonaldia hasi baino 7 egun lehenagokoak edo horren aurrekoak badira, edo egonaldia amaitu eta 15 egun igaro ondorengoak badira.

b. Ez da onartuko ibilgailuak alokatzeko egindako gasturik.

c. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, egiaztagiri gisa gorde beharko dira autopistetako agiriak edo antzekoak, joan-etorria justifikatzeko.

a. III. modalitaterako, lehen esandakoaz gainera, ostatu eta mantenu gastuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, norako herrialde bakoitzean baimendutako gehieneko mugak kontuan hartuta.

41. oinarria. JARRAIPENA

41.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, IGZ bitarte delarik, antolatuko ditu diruz lagundutako eskaerei jarraipena egiteko prozedurak.

41.2. Amaierako txostena. Laguntzaren xede den jarduera amaitu eta hurrengo hiru hilabetetan (IV. modalitatean izan ezik, non epea 6 hilabetetako izango den), amaierako txosten bat egingo dute horretarako emango den inprimaki batean. Ikertzaile nagusiak sinatu beharko du txostena, eta haren sail edo institutuko zuzendariak onespena eman beharko dio. Amaierako txostenean jarduera horretan eginiko gastu guztiak eta gastu horien frogagiriak jasoko dira.

I. modalitateko laguntzei dagokienez, harrerako ikerketa zentroaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Bertan, egonaldiaren datak adieraziko dira, eta gauzatutako jardueren deskribapen labur bat.

41.3. Amaierako ebaluazioa. Azken txostena entregatu ondoren, lortutako emaitzen ebaluazioa egin ahal izango da.

41.4. Aldaketak. Jarduera egin duen taldeko kideak edo helburu orokorrak aldatu badira, proposatutako aldaketentzat hitzemandako diru laguntzak aldatu edo ezeztatu behar diren ala ez erabakiko da, IGBBk dagokion txostena egin ondoren.

41.5. IV. eta V. modalitateetarako, gastua modu deszentralizatuan egingo denez, faktura originalak jarduera gauzatzeaz edo biltzarra antolatzeaz arduratuko den ikertzaile nagusiaren sailean edo institutuan artxibatuko dira, eta eskuragarri egongo dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko barne auditoretzako zerbitzuak, kontrol ekonomikorako bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak informazioaren bat eskatzen dutenerako edo egiaztapenen bat egin nahi dutenerako deialdi honen kargura jasotako laguntzei buruz.

Inola ere ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko agiriak galtzeagatik.

41.6. Jarduera gauzatzeko epearen barruan egindako gastuak besterik ezin izango zaio egotzi proiektuari; hau da, epe horretan egiazki egindako erosketak, bidaiak, lanak, eta abar.

42. oinarria. EMAITZEN USTIAKETA ETA KOMUNIKAZIO ZIENTIFIKOA

42.1. Ikerketaren emaitza guztietan (argitalpenak, patenteak, prototipoak edo erabilgarritasun ereduak), baita sortutako jakintza zabaltzeko eta ustiatzeko komunikazio zientifikoko ekintza guztietan ere (txostenak, hitzaldiak, biltzarrak eta ekitaldi zientifikoak), ikertzaileek UPV/EHUrekin duten lotura adieraziko dute eta erakundearen irudi korporatiboa agertuko da, Unibertsitateak ezarri moduan.

42.2. Ikertzaileak zein erakundetakoak diren jasota agertzeaz gain, esker onen atalean zehaztuta ageri beharko da ikerketa hori aurrera eramateko finantzazioa eman duten erakundeen zerrenda.

42.3. Ikerketa jarduerak aurrera eramanez, potentzialki patentagarriak edo jabetza intelektualerako bestelako elementuen bidezko babesa jasotzeko beharrezko emaitzak sumatuko balira, emaitza hauek ikerketako errektoreordetzari jakinaraziko zaizkio, beren erregistroa egin dezaten, pertsonal espezializatuak honela iriziko balio. Erregistroa eginez gero, UPV/EHU izango da patenteen eta jabetza intelektualak daukaten gainerako objektuen titularra, eta asmakuntzan parte hartu duten ikertzaileak asmatzaile gisa aitortuko dira. Erakunde edo eragile sozialekiko lankidetzan burututako proiektuen kasuan, titulartasun partekatua edo kasu bakoitzerako ustiapen eskubide espezifikoa negoziatuko dira, erakunde bakoitzak jarritako baldintzen guztien proportzioan.

43. oinarria. SUBENTZIOA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA

43.1. Ikertzaileei diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, betiere diru laguntzaren helburua bete dela ulerturik, eta ikertzaileek diru laguntzarik jasotzen badute beste erakunde publiko edo pribatuen batetik, horrek bere garaian diru laguntza emateko onartutako ebazpena aldatuko duen ebazpena ekar dezake. Bertan, ondorengoak ezar daitezke:

- a. Modalitate guztietako laguntzetan, jarduerari esleitutako aurrekontua murriztea.
- b. I., II., III. eta VI. modalitateetan, eskatzaileak jasotako laguntza guztia edo zati bat itzultzea.

43.2. Horretarako, dagokion administrazio prozedura burutuko da, eta gero, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposamena edo txostena eginda, erabakia emango da, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4. oinarriari jarraiki. Erabakia jarduera gauzatzen duen ikertaldeko ikertzaile nagusiari jakinaraziko zaio, IV. eta V. modalitateen kasuan, eta laguntzaren titularrari, berriz, I., II., III. eta VI. modalitateen kasuan.

43.3. Honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Laguntza eman zen mugikortasunari uko egiten zaionean edo, hala behar bada, ikertzaile nagusiak jarduera egiteari uko egiten dionean, edo UPV/EHU ez den beste erakunde batera lekualdatzeak edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eramateak arriskuan jar dezakeenean ekintza bera egitea eta aurreikusitako helburuak lortzea.
- b. Ekintza berberera egiteko beste iturri batetik heldutako diru laguntza pilatzen denean, edo behar adina justifikatu gabe ekintza beraren aldakiak aurkezten zaizkienean beste erakunde edo zentro publiko nahiz pribatu batzuei diru laguntza jasotzeko, aldeztu aurretik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
- d. Eskaperan datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatuzea.
- e. Gastu bera aurrekontuko atal organiko bati baino gehiagori egozteak.
- f. Jarduera finantzatzeko xedez egindako deialdien barne ez dauden gastuak egitea UPV/EHUK kontrataziorako ezarritako prozedura zentralizatuak bete gabe.

44. oinarria. LAGUNTZA ESKURATZEN DUTENEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorrei buruzko arauari.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoak (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoak) ari direla.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA

Deialdi honen aurka, zeinak administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegiaren aurrean, hura argitaratu eta hila beteko epean. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Ikerketaren arloko errektoreordeari, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioan, 2023ko abenduaren 1ean

Inmaculada Arostegui Madariaga
Ikerketaren Arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Investigación